

Yon Etxaide, barne exilioan euskaltzale

*

JOAN MARI TORREALDAI

*

Yon Etxaideri *Jakin*-ek eskaintzen dion dossiertxo honetan agertzen diren lanen osagarri gisa balio du nire ekarpen honek. Yonen zenbait esaldi eta gertakari erabilerikiko ditut hemen, dokumentu zenbaitez hornitu eta aberasturik.

60ko hamarkadako hasiera-hasieran ezagutu nituen Yonen idazlanak, hain zuzen ere ni neu euskal kulturaz jabetzen hasi nintzen lehen orduan. Yon bera, pertsona, urteak geroago ezagutu nuen. Tarte horretan Yonen haserrearen berri ere izan nuen. 1966 edo 1967 behar zuen. Eta oker ez banago, Barojari buruz idatzi zuen artikuluan. Ni *Jakin*-en zuzendaritzan nengoen orduan, beste batzuekin batera. Mutiko gazte gu, euskaltzaleen gerra gramatikalez artean ondo enteratu gabe egon, eta Yon Etxaideri aditz-forma bat aldatu genion: *dieza*- gisa jartzen zuena *deza*- bihurtu genuen. A ze haserrea Etxaidereana. Ez dut gogoan, baina seguru horregatixe utzi zuela gure aldizkarian kolaboratzea.

Nik neuk pertsonalki harremanetan jarraitu dut ia-ia hil arte. Urtetan ez eta, *El libro negro del euskera* argitaratu nuenean, egon nintzen azkenekoz berarekin. Hil baino denbora gutxi lehenago. Etxean bisitatu nuen eta ale bat eskaini nion. Eta alearekin batera, nire miresmena eta es-

● Joan Mari Torrealdai Soziologian doktorea eta Kazetaritzan

kerrona. Miresmena, bere traiektoriagatik. Eta eskerrona, euskararen zapalketaren inguruan laguntza handia eman zidalako.

Harreman handiko adiskidetasunik ez dugu izan. Une bat salbu, esango nuke. 80ko hamarkadaren erdialde-
ra ekin nion euskararen zapalketaren inguruko materiala biltzeari. Alde batetik euskararena, eta bestetik zentsurarena. Han eta hemen bildu nuen ahal nuena, eta gero idazleei idatzi nien laguntza eske. Makina bat idazlek bere testigantza eman zidan. Yon Etxaidek materiala ekarri zidan, bisitatzera etortzen zitzaidan, gogotik animatu ninduen, lagundu. Pistak eman ere bai. Askok sofritua zen, biziki kezkatzen zuen gaiak. Sarri galdetzen zidan: «Aita Zubiaga-
rekin egon al zara? Beharrezkoa zaizu». Aitortu behar dut, damu naiz orain, berarekin egon gabe hil zela Aita Zubiaga. Gertakari asko ezagutzen omen zituen honek, euskararengatik jazarriak izan ziren lagun askoren kasuak.

Euskal Kultura Gaur liburua atera nuenean, gai nagusia azken hogeituroko kultura idatziaren historia bada ere, gerraosteko belaunaldiko bi euskaltzale eta idazle prototipiko omendu nahi nituen, modu xumean. Orrialde batean Martin Ugalde eta Yon Etxaide apartatu nituen. Martin Ugalde, exilio-exilioko pertsona miresgarri eta eredugarria. Eta Yon Etxaide, barne-exilioko euskaltzale aparta.

Yon Etxaideren euskaltzaletasunaren froga batzuk nahi nuke ezagutzera eman. Pertsona bera da, euskarako klaseak ematen dituena, euskararen gainean idazten duena, exilioko aldizkariak klandestinoki zabaltzen dituena, euskaldunon historia ukatua ezagutzera emateko idazten duena, euskara salbatzeko euskaraz mintzo dena nonahi eta noiznahi. Desgiroko euskaltzale militantea dugu Yon Etxaide.

Euskaltzaletasunaren frogak, Yonen kasuan, berak jasandako zauriak dira. Gertakari batzuk ekarriko ditut nik hona, berak kontatuak edo berari gertatuak. Aipatuko ditudan paper hauetarik gehienak berak eman zizkidan, eta beste batzuk artxibotan bilatuz eskuratu ditut. 1985ean Yonek pasa zizkidan paperen artean bazeuden batzuk *Etxaide Jauna* libururako prestatuak eta beste batzuk nire-

tzako idatzi eta gero argitara eman dituenak *Purra! Purra!*-ren azken bertsoian.

Dokumentu horietako batzuk bildu eta jendearen eskura uztea dute helburu ondoko lerrook.

«Frankotar euskaltzaleak»? Iruzurra!

Lehen orduko pertsegizioa, euskararen aurkakoa, baretzen hasi zenean, Franco-ren altxamendutik dozena bat urtera, zenbait frankista (ez falangista) euskal gaiak erabiltzen hasi ziren, euskal kulturara hurbiltzen. Herri-mailako ekintza bat edo beste egiteko posibilitateak ireki ziren, guxti batzuk, bakanak. Herri-mailako jardunaz gainera beste bide bat ere jorratu zuten: euskal kultura jasoarena, bide intelektuala-edo.

Bide berri hauen aurka altxatzen da Yon Etxaide 1949an, aldizkari klandestino batean:

«Vascongado» izenekiko gure etsaiak or ari dira buru-belarri, Franco'ren jaurbideak ez dula euskeraren aurka egiten azaldu naian.

Alakuok, edo-ta jakitez gezurretan ari dira edo-ta Franco'ren alderdikidetasun itxurakeriak eraginda begiak arras lausoturik dituzte. Lanbidez eta oitzez gezurretan ari diranak, eurak asmatutako gezurrak sinisten omen dituzte, ta auxe gertatu bide zaie, leentxe egoki xamar aipatutako taldekoai. Alegia, gezurraren gezurrez beren buruak iruzur.

Yonek bazekien urte horietan Gipuzkoako Diputazioaren inguruan zegoen mugida: 1945ean sortu zuten *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*; bi urte beranduago, izen bereko argitaletxea montatu zuten; hurrengo urtean, 1948an, *Egan* aldizkaria; 1949an, *Munibe*.

Yonek ez zekiena da (nahiz eta usaindu) proiektu horien atzean zegoen jomuga. Adibide gisa, *Egan* zertarako sortu zuten honela esplikatzen dio *Boletín*-eko zuzendaria Donostiako Prentsa eta Propagandako Delegatuari:

La finalidad espiritual que persigue la pretendida publicación es la de recoger y encauzar dentro de las normas

patrióticas de la Sociedad, a la juventud intelectual de las tres provincias vascongadas brindándoles una plataforma para sus actividades. Proyectábamos también, que algunas de sus páginas estuvieran escritas en vascuence —cuentos y versos—, un vascuence puro, sin arbitrarios neologismos de laboratorio, precisamente para tratar de desvirtuar lo que los separatistas hicieron en este sentido y para no dejar esta baza en manos de los enemigos pues al otro lado del Pirineo, los vasco-franceses en estrecha colaboración con los emigrados políticos han iniciado una intensa campaña en pro de los estudios vascos y creemos político que no debe dejárseles la exclusiva tanto por la desviación que podían dar a la propia naturaleza de los estudios como por lo que en sí pudiera suponer...

Hauen aurka posizionatzen da argi eta garbi Yon Etxaide, exilio guztiarekin batera. Barruan, aldiz, badira aginteak eskaintzen duen bide posibilista hau aukeratu dutenak.

Yon Etxaideren orduko posizioa zehazki ezagutu dezakegu, berak 1949an exilioko aldizkari baterako idatzi zuen artikuluari esker. Yonek berak eman zidan eskura artikulua, makinaz joa. Seguru esan zidala non publikatu zuen, baina ez dut gogoan orain. (Eranskin gisa ematen dugu hemen «Zer gertatu zan Santo Tomas egunez?» artikulua).

Aipaturiko artikuluan bereziki gertakari batez ari da. 1947ko Santo Tomasetan debekatu zuten *Arantza* antzerkiak. Ez dut zertan laburtu, zehatz-mehatz kontatzen baitu berak gertatua. Oraingo talaiatik begiratuta, interes handia du artikulua agintearen jokabidea ezagutzeko: debekua (antzerkiaren hiru emanalditik bi debekatzen dira), kontrolaren zehaztasuna (lore «separatistak» kentzea) eta zigorra (bazkaria antolatzeagatik multak). Yonen tesia ere bistan azaltzen da: frankismoak ez du nahi euskara bizi dadin, eta legez ezin duena azpikeriaz lortzen du.

Genozidioaren beldur

«Jenozidio» hitza erabiltzen du berak *Zeruko Argia*-ri eskaini zion elkarrizketan (1979):

Frankismoak Euskalerriarekin egin zuen jenojidioa, gaurko belaunaldikoak ondotxo konturatzen ez diren modukoa izan zen. Ni behintzat, askotan, etsirik egon nintzen gure Herria —herria bere hizkuntzarekin alegia, zeren hizkuntza galduz gero ezin baititeke izan geure herria— biziarekin aterako ote zen frankismoaren hatzaparetatik.

Genozidio honen marka batzuk jasotzen saiatu zen bera. *Etxaide Jauna* obrarako prestatu zituen orrialde batzuk aukeratu zizkidan, eta horietan agertzen da etxe edo denden izen-aldaketak frankismoan, bere amak kontaturiko tranbiako emakume arrantzaleen anekdota, Luzia Ordozgoitiren kasua, ortografiaren garbiketa frankista, eta abar.

Kontatzen dituenak ez baino berak egindakoak aipatuko ditugu hemen, modu arin batean.

Euskara irakasten

Angustiaturik bizi zuen genozidio honi aurre egiteko, Yonek euskara irakasten du, gure historia irakasten du, mendian, txokoz-txoko, ahal zuen tokian. Gutun batean kontatzen dit (1985):

Ni ezkondu artean beti euskarazko klaseak ematen ari nintzen gure hizkuntzarenganako amodio hutsez, batzutan Santa Maria elizako lokaletan, bestetan kaiko San Pedro elizaren lokaletan, Club Vasco de Campinen eta abar, hots lekua urrurik nun utzi, hantxe.

Doan eta modu txarrean ibiltzea zen bat eta salaketatik nola babestu zen bestea. Gutun berean anekdota hau kontatzen du:

Horra ba, kaiko San Pedro elizaren lokaletan klasean ginen batean polizia agertu zitzaigun. Bi ziren, ohi bezala. Bat, Del Estal zen, donostiarra bera, Tudelan (Muskarian), ekolojisten bilkura famatu hartan poliziak hil zuen neskatoren (Gladys Del Estal) osaba jatorra. Lehendikan ere ezagutzen ninduen, zeren gartzelan sartu nindutenean bera etorri baitzen ni atxilotzera. Berez mutil ona, atsegina eta beti edukazio haundiz jokatzeko zuena. Nik bera-

ren oroipen ona dut. Alderdi txar bat zuen, polizia izatea, ene ustez beste ezertarako balio ez zuelako. Horra ba, bat-batean azaldu zitzaizkigun ikastaldi erdian, esanaz salaketa bat izan zutela abertzaleak han biltzen ginela gure egintzak prestatzeko euskal ikastaldien aitzakian eta kuadernu eta liburu guztiak erakutsarazi zizkigun. Laster ulertarazi nion han ez zela politika izpirik eta gure egin-kizuna euskararen aldekoa zela soilki. Berehala barkamendu eskatu zidan eta trankil jarrai genezakeela aditzera eman, eta sentitzen zuela gertatua, baina bere eginbeharra kunplitu beharra izan zuela salaketa faltsu bat zela medio. Geroztik ez ginduzten gehiago molestatu. Beraz, hemen ez zen euskararen jazarpenik izan Estatuaren aldetik, baina aditzera ematen dizu zer giroan bizi ginen edozein salaketen mende.

1985ean, gutun hori idatzi zidanean, ahaztuta ote zeukan Yon Etxaidek aginte frankistak egin zuen sarraskia, jenezidua?

Giroa, giro txarra, azpimarratzen du berak hemen. Garai hura ezagutu dutenei, badirudi gogorrena zera gertatu zaiela, eguneroko bizitzan jasan ohi zuten babes falta hori, indefentsioa, arbitrariotasuna, edozein denuntziaren menpe egote hori. Eta horren ondoan, agintearen jokabide juridikoak ez duelako halako garrantzirik. Ez dakit balio duen interpretazio honek. Baina gogoan dut Koldo Mitxelenari ere esangura berdintsuko zerbait irakurri nio-la aspaldi.

Nolanahi ere, jakina da giroa zernolakoa zen. Giroa barik desgiroa, horrela esan zuen Yonek 1979an:

Nik giroa baino desgiroa esango nioke hobeto guk euskal lanari ekin genion denbora tristeari. Euskal giroa formatu beharra zegoen alde guztietan aurkitzen genituen eragozpenak urratuz. Legeak ateak isten zizkigun. Euskaraz idatzitako libururik ez zen posible izan argitaratzea 1950garren urteraino.

Desgiroan ere euskaraz

Desgiroan ere Yon Etxaidek, ahal zuenero, euskaraz egin ohi zuen. Berak dio:

Gai honetan nik errespetu izugarria jartzen nuen nire laguneren artean. Etxaiderekin ez zen erdaraz egiterik. Beti euskaraz, jendearen eredugarri.

Beti euskaraz. Gaur ez da erraza, eta orduan gutxiago. Lizarrako ostatuan eskapada ederra egin zuten Yonek eta bere lagunek. Euskaraz mintzatzeagatik salatzearekin mehatxatu zituen gizon batek, eta Yonek erantzun: «Haga Ud. lo que quiera, pero nosotros seguiremos hablando en euskera, porque es nuestro idioma y no hay ley que lo prohíba». Esan eta egin, salatzailleak goardiazibilei abisatu, eta laster izan zuten hauen bisita. (Ikus «Lizarraran salatuak»). Koadrilako bi legez kanpo zeuden eta goardiazibilak etorri aurretik hanka egin zuten eta lehenengo autobusean itzuli ziren, eta besteak biharamonean. Txangoa izorratuta ere, honela bukatzen du Yon Etxaidek bere kontaktuzuna: «Baina, bestalde, gure euskara gaisoak ez al zuen defentsa bat merezi?». Horrelakoa zen Yon Etxaide, oso-oso.

5.000 pezetako multa eta kartzela

Ni neu poliziak detenitu ninduen bi aldizkari horien (Jokin Zaitegiren *Euzko Gogoa* eta Isidoro Fagoagaren *Gernika*) zabaltzailatzat eta kolaboradoretzat salatuz eta Martutene-ko gartzelan sartu ninduen aurrena eta gero Gas-teiz-ko gartzelara esposaturik eraman. Eta guzti hau euskal-kulturaren alde lan egiteagatik.

Ez du esaten, ordea, bost mila pezetako zigorra ere jarri ziola Gipuzkoako Gobernadore Zibilak. Ordurako kartzelan behar zuen Yonek, Martutenen, hara bidaltzen diote-eta multaren agiria. Dokumentu honek ez du aipatzen kolaboratzaile izana, ez eta zabaltzaile izana. Honela dio Gobernadore Zibilaren testuak hitzez hitz:

El Excmo. Sr. Gobernador Civil de esta provincia ha acordado imponer a Vd. la multa de CINCO MIL pesetas por poseer escritos y propagandas contrarias al Régimen.

Formulak formula, Yon Etxaidek arrazoi du, seguru. Oker ez banago, aldizkari «klandestino» bateko bost aletik gora etxean edukitzea, propaganda ilegaltzat joa zen.

Ez da harritzekoa, hortaz, fitxa poliziako beltza izatea gure Yonek. *Purra! Purra!* argitaratzeko tramitazioan, *Ministerio de Información y Turismo*-ko Delegazio donostiarrak liburuaren fitxa bidali zuen Madrila, eta honi itsatsirik Etxaideren txosten politiko-soziala deitzen zena. Honela dio 1951ko abenduaren lauan egindako fitxa polizialkoak:

DON JUAN ECHAIDE ITARTE. Persona de buena conducta en todos los aspectos. El G.M.N. (*Glorioso Movimiento Nacional*) le sorprendió en esta capital, no habiendo evacuado ni tomado parte alguna en favor de los rojos separatistas. En la actualidad no se le conocen actividades políticas de ninguna clase pero consta que fue sancionado con 5000 pesetas pasando a disposición del Juzgado por impago de la misma, como consecuencia de poseer propaganda contraria al Régimen. En el año 1948, fue sancionado con 1000 pts. por haber celebrado una comida en el Bar del barrio de Zubieta (sic), a la que concurrieron más de 30 comensales sin la correspondiente autorización.

Zentsurarekin borrokan

Bi libururekin izan zituen arazoak aipatzen ditu Yon Etxaidek *Zeruko Argia*-ko entrebistan, *Purra! Purra!* ipuin-bildumarekin eta *Joanak-Joan* eleberriarekin:

Neure *Purra! Purra!* ateratzeko, lehendabizikoz baimena ukatu zidaten. Bigarren saioan gaztelaniazko itzulpena eginerazi zidaten eta horrela lortu nuen baimena. «Joanak-Joan» eleberriarekin nerebiziko galbarioa pasa nuen baimena lortzeko. Gutxienez urtebetean jardun nintzen borrokan Información y Turismoko jendearekin. Hemengo delegazioak Madrili botatzen zion aitzakia eta Madrilak hemengo delegatuari. Gogoratzen naiz, azkenean, Madrilan errazago lortzen zirela baimenak hemen baino, eta legeak hemengo delegazioaren bitartez egitea eskatzen baldin bazuen ere, uste dut kasurik gehienetan zuzenean egiten zela, hemen baino eragozpen gutxiago aurkitzen zelako.

Joanak-Joan liburuaren tramitazioaz ez dut nik artxibotan informaziorik aurkitu, fitxa soila besterik. Bestea, ordea, *Purra! Purra!*, ongi dokumentatua daukat.

Purra! Purra!-ren ibilbide administratiboa 1951n hasten da eta 1953an bukatu, 21 hilabete beranduago. Azaroaren 3an *Itxaropena* argitaletxeak Gipuzkoako Delegatuari aurkezten dio eskaria, originalaren bi kopiarekin. Hilabete beranduago bidaiatzen du dossierrak Donostiatik Madrila. Eskariari itsatsia goian aipatu dugun Etxaideren txosten poliziakoa dago orain.

Abenduaren 19an Batanero zentsoreak ipuin-bilduma debekatzea proposatzen du, arrazoi hauengatik:

Suspendida en atención tanto a la personalidad del autor —de antecedentes contrarios al Régimen—, como del contenido de la obra —cuentos sucios—.

Abenduan bertan ematen zaio ezetzaren berri argitaletxeari eta honek Etxaideri. 1952ko urtarrilaren 2an *Itxaropena*-k material guztia itzuli egiten dio autoreari, Madrilen gelditu den bi aleetako bat salbu.

Badirudi hemen amaitzen dela historia. Bada ez. Liburuak bere bidea jarraitzen du Ministerioaren barruan. Madriletik Donostiako Delegaziora txostena eskatzen dute, han ez dagoela euskara dakienik eta. Donostiako txostenak baietza proposatzen du:

... tengo el honor de devolverle la obra titulada PURRA-PURRA, y que a juicio de esta Delegación Provincial puede ser autorizada ya que solamente se trata de una serie de cuentos y anécdotas graciosas con el ánimo de distraer al lector y sin ninguna mención política ni ninguna frase que pueda rozar el aspecto moral ni religioso.

Zer gertatu zen gero? Ez al zitzaion honen berririk eman *Itxaropena*-ri, autoreari? Ez nonbait. Ez dakigu, egia esan, Madrilen erabaki positiborik hartu zenentz.

Dakiguna da, hurrengo urtean, 1953an, seguruenik uztaila aldera, tramitazio berri bat hasten dela. Bigarren saioa, aurrekoarekin zerikusi gabea. Oraingoan, *Itxaropena*-ren bitartekotzarik gabe, Etxaidek berak zuzenean eskatzen du baimena. Eta Donostiako Delegaziora jo beha-

rrean, Madrila jotzen du. Zuzenean Madrila jo ahal izateko itzuli egin ditu ipuin guztiak. Oraingo saio honek lortu du berea: 1953ko uztailaren 29an lortzen du baimena, irakurketa honi eskerrak:

Supuesta la exactitud de la traducción al castellano del texto vascuence, el contenido de dicha traducción nada tiene que objetar.

Laburbilduz: 21 hilabete behar izan da ipuin inoxente batzuk publikatu ahal izateko, obra guztia itzuli egin behar izan da. Eta gainera, Batanero zentsoreak euskara jakin gabe lasai ederrean erabakitzen du *Purra! Purra!*-ko ipuinak lizunak direla, «cuentos sucios» direla.

Bukatzeko

Yon Etxaidek «desgiroa» aipatu duenean badaki zertaz ari den. Guk gertakari soil batzuk aipatu ditugu. Baina desgiroak duen itzala zabala da, zabala eta luzea oso.

Ez ditugu aipatu ere egin, esaterako, 50eko hamarkadan autore batek publikatzeko zituen zailtasunak. Ez da zentsura bakarrik.

50eko hamarkadan idazle izatea kalbario izugarria zen. Yon Etxaidek behin eta berriz igo behar izan duen kalbarioa, bere hitzak erabiltzearen. Kontu egin 50eko hamarkadan 5 obra argitaratu dituela Yonek: *Alostorrea* (1950), *Purra! Purra!* (1953), *Joanak-Joan* (1955), *Pernando Plaentxiatarra* (1957), *Amasei seme Euskalerriko* (1958). Obra bakoitza guruzbide bat, zein baino zein gogorragoa.

Desgiro honek bete-bete harrapatzen du gure auto-rea.

Apenas dagoen nork publikatu barruan. Etxe erlijioso pare bat, eta 1952tik aurrera *Itxaropena*-ko *Kuliska sorta*. Baina *Kuliska sorta* ere egitura txikia da, oso txikia.

Nork zabaldu, banatu, falta da. Non saldurik ere ez dago. Euskarazko liburua saltzen duen liburutegiarik ez dago, ezta Donostian ere. Irakurlearengana iristeko liburuari gelditzen zaion bide bakarra, harpidetza-sistema da.

Zenbat harpidedun, denetara? 200? 500? Yon Etxaidek liburu bakoitzaren argitalpenean bizi izan ditu zailtasun hauek, muga hauek. Eta barrera horiek hausten saiatu da. Ikusia nago Yon Etxaide euskaltzaleen etxeak bisitatzen, bere liburuak saldu nahita.

Gogorra da, bai, 50eko hamarkadako euskaltzale eta idazle baten bizitza! Yon Etxaiderena lekuko. ♪

Zer gertatu zan Santo Tomas egunez?

«Vascongado» izenekiko gure etsaiak or ari dira buru-belarri, Franco'ren jaurbideak ez dula euskeraren aurka egiten azaldu naian.

Alakuok, edo-ta jakitez gezurretan ari dira edo-ta Franco'ren alderdikidetasun itxukeriak eraginda begiak arras lausoturik dituzte. Lanbidez edo oitzez gezurretan ari diranak, eurak asmatutako gezurrak sinisten omen dituzte, ta auxe gertatu bide zaie, leentxe egoki xamar aipatutako taldekoai. Alegia, gezurra-
ren gezurrez beren buruak iruzur.

Ez ditut edestu asmo txosten onetan francotarrak amabi urte luze oietan euskera galtzarren egindako egiñal ta astakeri guziak. Arlo luzea, azkengabea bailitzake, batez ere lenengo beroaldian egin zituztenak zenbatzen. Azter dezagun soilki, francotarrak, ozki, azpikeriz ta dollorkeriz Santo Tomas egunez egin zutena beren egingaia patxadan tajutu ondoren.

Geintsuk jakin-dakite, 1947'ko Santo Tomas egunez Principal antzokian zedozer bakan xamarra gertatu zala. Gutxik ordea, oso gutxik dakite an zeatz gertatutakoa. Egi au argi ta garbi azaltzea da gure betebearra.

Nork eratu zun Principal antzokiko euskal-jaia? Zer dala-ta eratu zun? Zertzuk ziran jai orren helburuak?

Jaialdia Donosti'ko Aurrezki-Etxeak eratu zun, Santo Tomas egunari antziñako euskal-kutsu ederra berriro erastearren. Egun orretan eundaka ta eundaka maizter etorri oi-dira beren baserritatiek Gipuzkoa'ko uribururaño beren nagusiekin urteko kontu garbiketa egiteko. Goizean, peria, lukainka edo txistor jatea, zarata ta alaitasuna Zarraldean batez-ere; ondoren, bazkari ona nagusien etxean, akeita, txola ta... txokor edo puro eder bat erre-tzalleak. Gero, kalera. Nora baña?

Gorputza ase-ase dagon ezkerro gogo asetzera... ta gure baserritarrak urtetan eta urtetan Principal antzokian asetzen zuten beren gogo-egarria euskal-antzerti eder bat ikusiz eta gure bertso-lariei entzunaz. Ala izan oi-da aspaldi. Obeki mintzatuz, ala izan zan 1936'garren urte negargarriraiño. Gerokoa guztiok dakigu...

Donostiar Aurrezki-Etxeak, francotarrak eten zuten oitura au berpiztu nai izan zun, eta an bildu diruak «Ongintza Bazkuna» edo «Junta de beneficencia»ri eskeñi. Asmo polita, lan ederra, norberetzako irabazpide gaberik urkoaren onbearrez egiñal! Asmua zan bezela iru antzekizun egin izan ba'lira, Ongintza Bazkunak ogeitabost milla pesetatik gora jasoko lituke.

Agerkaiak (Programak) eta «Arantza» euskal-antzeriaren erdel-itzulketara (bideak «lautzearren» erderara itzultzea eskatzen baidute) «Subsecretaría de Educación Popular» deritzaionera bialdu zituzten eta batere eragozpenik gabe baimena sellatuta bialdu zuten.

Ostegun goizean lenengo iragarkiak (anunzioak) azaldu ziran izperringitan eta egun berako goizeko amaiketan «Subsecretaría de Educación»etik urrutizkiñez ots egin zuten Aurrezki-Etxera, esanaz, iru antzezkizunak eragotzitak gelditzen zirala.

Galdetu zitzaizen nola egin lezaketan alako lege austerik berak baimena eman zien ezkeroz. Erantzuna: «Arantza» antzertia etzegola «Dirección General de Cinematografía y Teatro»n izenpetua ta egin nai izan ezkeron an izenpetu bear zala. (1947'ko otsaillean, Agate Deun egunez, Aurrezki Etxeak Kursaal antzokian eratu zun euskal jaian «Gai dagonaren indarra» antzertia jarri zuten eta au ere etzegon izenpetua ta etzuten izenpetzekorik aiatatu. Ezpaitzien buruak eman alako aitzeki ederrik. Geroztik ondo pentsatu zuten. Gañera, legez ezpa'zegon zertan eman baimena. Eman, ordea, ezin kendu liteke gizonki jokatzu).

Guztiau gaiztakeriz ta asmo txarrez zegiten. Ostegun eguerdia zan. Santo Tomas igandea. Etzegon iñola ere astirik antzertia izenpetzeko. Nola Madril'era bialdu an aztertu ta oniriztekotan Donosti'ra bialdu iru egunen buruan? Eta iragarkiak nola ipiñi bitartean ez jakiñean eta «Educación»ekoak galazten zutelarik?

Gauzak zuzenbiderik etzula ikusita, Aurrezki Etxeko zuzendaria, Dotres «Subsecretaría de Educación»eko buruarekin egotera joan zan eta arrenka eta arrenka «Arantza»ren antzezkizun bat egitea laga zuten. Beste bi emanaldiak antzerti gabe bete zitzaizuten.

Legea jarri, legea kendu! Orain, etzan bearrik «Dirección General de Cinematografía y Teatro»n izenpetua egoterik. Bañan, entzun ondo: Arantza antzezkizun bakarrean. Asmoa: Aurrezki Etxea galpideratu geiago euskal-jairik eratu etzezan, uste baitzuten beste bi emanaldiak ezin beteko zituztela antzerti gabe.

Agate deunaren egunean egindakoa gogo txarrez bada ere utzi zuten. Bigarren jaialdia eratutakoan, antz eman zioten, Aurrezki-Etxeak, jai au urtero berpiztutzeko asmoa artu zula ta orretan ezin amor eman. Ainbesteko ausarkeria mugatu bearra zan, eta azpikeriz, makurkeriz eta gaitz asmoz Aurrezki-Etxearen asmoak ondamentiratu nai izan zituzten.

Alabaña, izenez galazten zutena antzertia zan eta diru bilztearen galera ain aundia izan etzedin, azkeneko unean, buru-be-

larri ta bazter guztiak nastuz, iritxi zan zazpitakoaz gañera beste jaialdi bat eratzea lauretan, txistulari, dantzari, bertsolari ta abar. Larunbat arratsaldeko bederatziak inguruan Aurrezki-Etxean «Gobierno Civil»eko deia izan zan (garbiki mintzatuz Andrade jaunarena) auxen esanaz: zazpitakoa ezik beste antzekizunak eragotziak gelditzen zirala. Erantzun zitzaien «Arantza» batean bakarrik ipintzen zala. Erantzuna: «Con 'Arancha' o sin 'Arancha' no pueden dar Vds. más función que el de las siete». Ta urrutizkiña zintzilikatu zuten.

Santo Tomas'en eguna etorri zan eta eratzallien biotzak dar-dar zeuden. Utzi zuten antzekizun bakarra ez ote zuten galereziko oraindik?

Eta antzerti bitartean gertatu ziranak? Ez det geiegi luzetsi nai baño au, adigarria da ta esatera nua.

Antzokian sakabanaturik ogei polizi ba'zebiltzan nola-nai, buruzagitza osoa ta guzi, antxen baizebiltzan aipu gaiztoko Andrade ertzainburua ta Palomo ta Carvajal burupekoak.

Atsedendia zan. Palomo sartu zan antzertokian eta mundua jausi bailitzakean orruka asi:

– Quién ha colocado estas flores aquí!

Loreontzi batean gorri-zuri margodun loreak ziran eta... noski, ostoa orlegiak.

Aurkeztu zitzaion ipiñi zituna ta Palomo'k dirautso ozenki:

– No sabe Vd. que estas flores tienen los colores separatis-tas? Haga el favor de quitar inmediatamente las blancas y colocar en su lugar amarillas.

– Lo siento mucho, señor, –erantzun zion besteak (Antoñana jaunak)– pero no hay flores amarillas en todo el teatro.

Orduan, Palomo'k bere eskuz txuriak erauzi (arrancar) zitun. Antoñana jaunak irrikeriz bota zion:

– Le advierto a Vd. que ahora florece el Primero de Mayo.

Baño Primero de Mayo'k etzion nunbait ainbesteko buruko miñik egiten eta lore gorriak antxen gelditu ziran.

Alako zirtzilkeritan ibilli ziran laga zuten antzekizun bakarra nundik eta nola eragotziko. Erantzun txar bat aski litzake. Izan edo ez, aitzekia erraz idorotzen baita.

Ondoren, antzerti au zala-ta, Aurrezki-Etxeak ertilari guziaz bazkari bat eman zienean Zubieta'ko auzoan, polizikoak atzetik ziran. Eratzallea ta antzezlari guziak erotu zituzten Gobierno Civil'era bein edo geiagotan eramanaz abertzale abestiak kantatu zirala aitortu-azi naian ikararen-ikaraz. Naiz ta bazkaldarren artean karlista taldeko batzuk izan etzuten iritxi iñork berak nai zutenik

aitortzea. Bañan, au gora-bera berena egin zuten: bazkaria egiteko baimenik eskatu etzalako eratzalleari milla pestako multa eman zitzaion. Eratzalleak (Etxaide'tar Yon jaunak) etzun Zubietara joaterik aal-izan bazkaria aukeratzeko ta orretxegatik beste bat bialdu zun (Agote'tar Emili jauna). Bizikleta artu ta Zubietara joatea egin zulako beste milla pestako multa erantsi zioten. Azkenik, jatetxeko nagusiai bazkaria baimenik bage eman zutelako bosteun pesta. (Esan bearrik ez jatetxe ortako nagusiak abertzaleak dirala, beren aldekoak izan ezkerro ezpaizuten multarik izango).

Itz bitan: ez dute esango «egiterik eztago» baño makurkerioien bitartez argi ta garbi aditzera eman nai dute zedozer egin naian dabiltzan alper-alperrik dabiltzala, aurrez-aurre ta gizonki eragozten ausartzen ezpa'dira ere azpi lanez galduko dituztela. Alako makurkeriak bide dirala nork eratu bear du euskal antzeritirik?

Aurrezki-Etxeak beñepein Franco'k diraun artean ez geiago eratzeko asmo sendoa artu du. Izan ere nola eratu iñolako garantiarik ezpa'dago? Baimena eman eta biaramonean Hitler'en gixa itza jaten ba'dute? Nola, aurretik baldin ba'dakite beren ondamentiaren billa dabiltzala?

Antzerti jai oni ezpa'dagokio ere beste agiritxo bat azaldu nai det emen. «Aurrezki-Etxe»ko «Abril 1947» zenbakia ateratzera zijoaztenean, artu zuten «Subsecretaría de Educación Popular»tik euskaraz ez idazteko agiria. Beraz, zenbaki ontarako gerturik zituzten euskal-idazlanak jaso egin bear izan zituzten eta arrezkeroz ez dakar aldizkingi onek euskerazkorik.

Zertan gera, beraz, francotar «euskaltzaleak»? España'ko zuen adiskideak euskeraren alde edo kontra ari dira? Zuetakoren batek oraindik esango digu francotarrak euskera «monumento nacional» egin dutela. Bai noski! Bañan onenian ez dezu jakingo zergatik egin duten alakorik eta ezpa'dakizu ere oraintxen esango dizut: bertantxe lur emateko. Orduan idazkitxo dotore bat jarriko dute monumento orretan onelakoren bat esanaz: «Este monumento conmemora la existencia de la gloriosa lengua vascongada que fue en su vida el orgullo de la nación española».

Auxe dezu, francotar euskaltzalea (?) zuen nausitxoen ametsa.

Donosti'n, Urrilak 18. 1949.